

25
DENBORALDIA
TEMPORADA
26



Bilbao Orkestra
Sinfonikoa



F
d Elkarrizketak
diálogos



THE LORD OF THE RINGS

RETURN OF THE KING

HOWARD SHORE'S ACADEMY AWARD-WINNING SCORE
HOWARD SHORE'S OSCAR-WINNING SCORE

ABENDUAK 18-19 DICIEMBRE

In Concert

Filmaren proiektzioa (jatorrizko bertsioa, euskarazko eta gaztelaniazko azpitu-luekin) eta Bilboko Koral Elkarteak, Bilboko Koral Elkarteko Haurren Koruak eta BOSEk zuzenean interpretatutako soinu-banda.

Proyección de la película (versión original con subtítulos en euskera y castellano) y banda sonora interpretada en directo por la Sociedad Coral de Bilbao, el Coro Infantil de la Sociedad Coral de Bilbao y la BOS.

Musika hizkuntza unibertsal eta transzendente gisa definitu da. Hizkuntza gisa, gainera, elkarrizketaren fenomeno ahalbidetzeko balio du, dihardutenean hazkundera ahalbidetzen duen prozesu eraldatzaile gisa ulertuta.

Musikako elkarrizketa bakarlaria duten kontzertuetan agertzen da argien, fenomeno horren aurpegi guztiak erakusten dituen musika-forma: entzutea, desadostasuna, elkar ulertzea, kontrajartzea, hainbat ahots biltzen dituen helburu komuna, adostasuna.

Denboraldi honetan bakarlaria duten hainbat kontzertu izango ditugu, elkarren artean oso desberdinak direnak, generoaren aberastasunaren erakusle: Sibeliusen *Biolinarako kontzertua*, Sergei Dogadinen eskutik; Gabriel Erkorekaren *Zuhaitz*, Kalakan taldearentzat idatzia, naturarekin eta arbasoekin estu lotutako musika organikoa eginez; Fazil Say pianista eta konpositore ospetsua pianorako *Mother Earth* kontzertu berriarekin, ingurumenarekin dugun harremanari buruz hausnartzen; eta Pacho Flores tronpetista-jotzailea *Concerto venezolano* dirdiratsua aurkeztuz, Paquito D’Rivera handiak berarentzat idatzia.

Erztunen Jauna trilogiari bukaera emateko *Erregearen Itzulera* dakargu. Amaiera ikusgarria, 11 Oscar sari irabazi zituen, tartean jatorrizko soinu-banda onenarena Howard Shorerentzat. Peter Jacksonen filmaren proiektio osoa Euskaldunako pantaila handian, BOSekin eta Bilboko Koral Elkarteko ahotsekin, musika- eta zinema-ikusketan bikain batean.

Berriz ere oratorio handi bat dakarkigu gurera Bachen *Pasión San Joanen arabera* lanak, abeslari espezialista nabarmenak eta San Juan Bautista Abesbatzako ahots gazteak lagun, Carlos Menaren zuzendaritzapean. BOSen podiumean estreinatuko diren izen handien artean aipatzekoak dira Vasily Petrenko (Shostakovichen *Leningrado Sinfonia*), Thomas Dausgaard edo Nil Venditti turkiarra. Pianoak, gainera, presentzia berezia izango du, aipatutako Fazil Sayen, Martín Garcíaen, Yeol Eum Son bertutetsuaren eta Kit Armstrong irudimentsuaren bisitak jasoko baititugu.

Sormen-lan berrien atalean nabarmentzekoak dira itsasoa inspirazio-iturri duten bi lan, *Oceans*, Sigfúsdóttir islandiarrarena, eta *Unda maris*, Javier Quisilant bilbotarrarena (Reina Sofia Musika Konposizio Saria). Bestalde, Moisés P. Sánchez sortzaileak, klasikoan eta jazzean heziak, *Omenaldia Manuel de Fallari* estreinatuko du Cádizko konpositorearen 150. urteurrenean.

La música ha sido definida como un lenguaje universal y trascendente. Como lenguaje, además, sirve de cauce al fenómeno del diálogo, entendido éste como un proceso transformador que permite el crecimiento de quienes lo practican.

Donde más claramente se manifiesta el diálogo en música es en el concierto con solista, una forma musical que muestra todas las caras de este fenómeno: la escucha, la divergencia, el entendimiento, la contraposición, el objetivo común con diferentes voces, el acuerdo.

Repasaremos varios ejemplos de conciertos con solista muy diversos y que muestran la riqueza del género: el *Concierto para violín* de Sibelius, en las manos de Sergei Dogadin; *Zuhaitz*, de Gabriel Erkoreka, escrito para el grupo Kalakan, una música orgánica en íntima relación con la naturaleza y lo ancestral; el afamado pianista y compositor Fazil Say con su nuevo concierto para piano *Mother Earth*, en el que reflexiona sobre nuestra relación con el medio ambiente; y el trompetista Pacho Flores presentando el brillante *Concerto venezolano*, escrito para él por el gran Paquito D’Rivera.

Culminamos la trilogía de *El Señor de los Anillos* con *El Retorno del Rey*, un final espectacular que mereció 11 premios Oscar, entre ellos el de mejor banda sonora original para Howard Shore. Proyección íntegra en la gran pantalla de Euskalduna de la película de Peter Jackson, con la BOS y las voces de la Sociedad Coral de Bilbao en un magnífico espectáculo de música y cine.

Vuelve el gran oratorio a nuestra temporada con la *Pasión según San Juan* de Bach, con un destacado elenco de cantantes especialistas junto a las jóvenes voces de San Juan Bautista Abesbatza, bajo la dirección de Carlos Mena. Otros nombres importantes que debutan en el podio de la BOS son los de Vasily Petrenko (con la *Sinfonía Leningrado* de Shostakovich), Thomas Dausgaard o la turca Nil Venditti. El piano tendrá una presencia especial con el citado Fazil Say, Martín García, o las nuevas visitas de la virtuosa Yeol Eum Son o el creativo Kit Armstrong.

En el apartado de la creación más reciente destacan dos obras inspiradas en el mar, *Oceans*, de la islandesa Sigfúsdóttir y *Unda maris* del bilbaíno Javier Quisilant (Premio Reina Sofía de Composición Musical). Y con Moisés P. Sánchez, formado en la clásica y el jazz, estrenaremos su *Homenaje a Manuel de Falla* en el 150 aniversario del compositor gaditano.

Denboraldi sinfonikoa

Temporada sinfónica



Hastapeneko abonua
Abono de Iniciación



Elkarrizketak
Diálogos



Pianoko babeslea
Patrocinador del piano



Kontzertu guztiak 19:30ean izango dira
Todos los conciertos se celebrarán a las 19:30 h



Euskalduna Bilbao
Auditoriuma/Auditórium

Programazio hau alda liteke. Baldintza orokorrak ikusteko www.bilbaorkestra.eus
Programación sujeta a cambios. Ver condiciones generales en www.bilbaorkestra.eus



© Mathias Bøthor

01

irailak 25 - 26 septiembre

M. H. M. Sigfúsdóttir
Oceans

P. I. Tchaikovsky
Concierto nº 1 para piano y orquesta en si bemol menor Op. 23

C. Saint Saëns
Sinfonía nº 3 en do menor Op. 78 "Órgano"

Martín García García, pianoa/piano
Elena Schwarz, zuzendaria/directora

Bere Maiestate pianoa

Azken 200 urteetako musikari buruzko hit edo pieza arrakastatsuenen zerrendarik balego, ez bairik gabe, Txaikovskiren piano-kontzertua, erromantizismo ikaragarria eta melodia indartsuak darabiltzala, lehen postuetan legoke. Martín Garcíaren birtuosismoaren neurri egindako lana da. Irekiera-programa honen jite arranditsua beste bi lanekin osatzen da: Saint Saëns musikagilearen 3. sinfonia (*'Sinfonia organoarekin'*) eta itsasoen handitasunean etorria daukan Sigfúsdóttir islandiarraren *Oceans* sinfonia bikaina.

Su Majestad el piano

Si hubiera una lista de hits en la música de los últimos 200 años, el concierto de Tchaikovsky, con su romanticismo arrollador y la fuerza de sus melodías, figuraría sin duda en los primeros puestos. Una obra a la medida del virtuosismo de Martín García. El carácter grandioso de este programa de apertura se completa con la brillante sinfonía "*Órgano*" de Saint Saëns y *Oceans*, de la islandesa Sigfúsdóttir, inspirada en la inmensidad de los mares.



02 urriak 02 - 03 octubre

J. Sibelius

Concierto para violín y orquesta en re menor Op. 47

J. Quislant

Unda maris

C. Debussy

La mer, Tres bocetos sinfónicos para orquesta

Sergei Dogadin, biolina/violín

Swann Van Rechem, zuzendaria/director

Itsasoa, ekarriaren iturri

Ez dugu itsasoaren oroipena alde batera utziko, programa honetan, hari nagusitzat hartuta: ildo hori agerikoa da *La mer* lanean, Debussyren poema sinfonikorik ospetsuenean, eta iradokitzen da Javier Quislant bilbotarraren *Unda maris* lanean, *Virgilio poetaren Eneida* epopeiarekin batera. Lan horri esker, Reina Sofía Sari ospetsua irabazi zuen Quislantek 2023an. Neurrigabetasunaren sentazio hori, etengabeko mugimenduan dagoen estatikoaren handitasuna, Sibeliusen musikan ere antzematen da joan den denboraldian txalotuenetakoa izan zen Sergei Dogadin biolin-jotzailearen eskutik, denboraldi honetan ere artista gonbidatua baita.

El mar como inspiración

No abandonamos la evocación del mar, esta vez como hilo conductor: evidente en *La mer*, el más célebre poema sinfónico de Debussy, y sugerido junto a la *Eneida de Virgilio* en *Unda maris*, del bilbaíno Javier Quislant, obra con la que ganó el prestigioso Premio Reina Sofía en 2023. Una sensación de inmensidad, de lo estático en permanente movimiento, que se percibe también en la música de Sibelius, con la reinvitación a Sergei Dogadin, uno de los triunfadores de la pasada temporada.



03 urriak 16 - 17 octubre

G. Mahler

Lieder eines fahrenden Gesellen

S. Rachmaninov

Sinfonía nº 2 en mi menor Op. 27

Sasha Cooke, mezzosopranoa/mezzosoprano

Ramón Tebar, zuzendaria/director

Alderrai dabilen kamaradaren amodioak

Txit harrigarria da hoguei urteko Mahlerrek lehen lied aldiari erdietsi zuen emozioen sakontasuna: *Alderrai dabilen kamarada baten kantuak*, Sasha Cookeren ahots bikainak abestuta entzuteari erabateko luxu deritzogu. Bidea eta maitasun galdua agerian, Rachmaninoffen bigarren sinfonia zirrargarria oso-osorik ere blaitzen duen erromantizismo berantiarrez jositako programa batean.

Los amores del camarada errante

Resulta sorprendente la profundidad emocional que un Mahler todavía veinteañero alcanzó en su primer ciclo de lied: las *Canciones de un camarada errante*, cuya escucha en la extraordinaria voz de Sasha Cooke se nos antoja un verdadero lujo. El camino y el amor perdido, en un programa teñido de un romanticismo tardío que impregna también toda la emocionante segunda sinfonía de Rachmaninov.



© Mark McNulty

04 azaroak 06 - 07 noviembre

D. Shostakovich

Sinfonía nº 7 en Do Mayor Op. 60 "Leningrado"

Karmele Jaio, narratzailea/narradora


Vasily Petrenko, zuzendaria/director

Leningrado, Vasily Petrenkok gidatuta

Xostakovitxen "Leningrado" deritzon 7. Sinfonia, XX. mendeko partiturarik garrantzitsuenetakoa izateaz gain, obrak totalitarismoen aurkako erresistentziaren ikurtzat dirau gaur egun. Sasoia zenean, propagandako helburuz erabili zen humanista baten salaketan oinarritzen da, baina horren ikuspegia askoz harago doa, musikagileak Volkov kazetariari adierazitako "Testigantza"-n agerian geratu zen bezala. Vasily Petrenko ospetsuaren batutak gidatutako ikuskizun aparta da, Ukrainaren inbasioan izan den zoritxar morala salatzeaz gain.

Leningrado por Vasily Petrenko

La *Sinfonía nº 7 "Leningrado"* de Shostakovich, además de ser una de las partituras más importantes del siglo XX, ha quedado como un símbolo de la resistencia contra los totalitarismos. La denuncia de un humanista, usada en su momento con fines propagandísticos, pero cuya visión va mucho más allá, como quedó patente en el "Testimonio" del compositor a Volkov. Todo un acontecimiento en la batuta del prestigioso Vasily Petrenko y su denuncia de la tragedia moral en la invasión de Ucrania.



05 abenduak 04 - 05 diciembre

M. Ravel

Ma Mère l'Oye, Suite

G. Erkoreka

Zuhaitz, Concierto para percusión vasca y orquesta

W. A. Mozart

Sinfonía nº 36 en Do Mayor K. 425, "Linz"

Kalakan

Jean Deroyer, zuzendaria/director

Mozart eta antzinakoa

Gabriel Erkorekaren lanik onenetakoa dugu *Zuhaitz*, obra horren hizkuntzaren modernotasuna usadioekin, naturarekin eta antzinakoarekin uztartu zuela; horretarako, Kalakan taldeko musikarien behar-beharrezko laguntza izan zuen. Mozartek tarte zorionsu batez gozatu zuen Linzeko egonaldi laburrean, eta sinfoniarik liluragarrienetako bat eskaini zion hiriari. Bestalde, Ravelen musikak eta musikariaren haurtzaroko oroitzapenek osatzen dute programaren edertasun barea.

Mozart y lo ancestral

Gabriel Erkoreka completó en *Zuhaitz* uno de sus mejores trabajos, imbricando la modernidad de su lenguaje con las tradiciones, la naturaleza y lo ancestral, y contando para ello con la complicidad imprescindible de los músicos de Kalakan. Mozart encontró un paréntesis de felicidad en su breve estancia en Linz, a la que dedicó una de sus más deslumbrantes sinfonías. Y el carácter de serena belleza del programa se completa con Ravel y su evocación de la infancia.



© Jesus Cornejo

06 abenduak 11 - 12 diciembre

L. van Beethoven

Concierto nº 3 para piano y orquesta en do menor Op. 37

F. Schubert

Sinfonía nº 9 en Do Mayor D. 944 "La Grande"

Xiaolu Zang, pianoa/piano

Iván López-Reynoso, zuzendaria/director

**Occident
Fundación**

Badator erromantizismoa

XIX. mendeko errepertorio ugariari begiraten dion egitarau biribila. Erromantizismoaren iraultza ulertzeko funtsezko bi obra eskainiko dira. Schubertek maisutasunez arakatu zuen formatu handia bere azken sinfonian, obra horrek, agidanez, Bruckner musikagilearen goitasuna iragarri zuela; Beethoven, berriz, emoziozko zirimoletan barruratu zen *do minorreko kontzertu* biribilean. María Canals piano-lehiaketaren irabazleak joko du pieza.

Irrumpe el romanticismo

Un programa redondo que atiende al gran repertorio del siglo XIX. Dos obras esenciales para entender la revolución del romanticismo. Schubert exploró con maestría el gran formato en la última de sus sinfonías, una obra que parece anticipar la grandeza de Bruckner, y Beethoven se aventuró en las turbulencias emocionales en su rotundo *concierto en do menor*, que escucharemos en la interpretación del reciente ganador del Concurso de piano María Canals.



07 abenduak 18 - 19 diciembre

H. Shore: *El Señor de los Anillos: El Retorno del Rey*

Bilboko Koral Elkarte/Sociedad Coral de Bilbao

(Enrique Azurza, zuzendaria/director)

Bilboko Koral Elkarteko Haurren Korua/

Coro Infantil de la Sociedad Coral de Bilbao

(J. L. Ormazabal, zuzendaria/director)

Zehaztu gabe/Por determinar, zuzendaria/director

Eraztunen Jauna: Erregearen Itzulera

Erregearen Itzulera, hau da, hirugarren atala interpretaturik, musikaren eta zinemaren arteko ezkontzaren gailurretako bati eskainitako zikloa amaituko dugu. Filmak 11 Oscar sari eskuratu zituen, besteak beste, Howard Shore musikagilearen soinu-banda onenarena. Berrito ere, filma osorik emango da, BOSeK jatorrizko partitura interpretatuko du eta Bilboko Koral Elkarteko kideek abestuko dute.

El Señor de los Anillos: El Retorno del Rey

Con la tercera parte, *El Retorno del Rey*, finalizamos el ciclo dedicado a una de las cumbres en la simbiosis entre música y cine, merecedora de 11 premios Oscar, incluido el de mejor banda sonora para Howard Shore. De nuevo la experiencia de la proyección íntegra de la película con la partitura original interpretada por la BOS y las voces de la Sociedad Coral de Bilbao.



© Marco Borggreve

08 urtarrilak 29 - 30 enero

J. C. Arriaga *Obertura Op. 20*

J. Brahms *Concierto nº 1 para piano y orquesta en re menor Op. 15*

I. Stravinsky *El pájaro de fuego, Suite*

Alessio Bax, pianoa/piano

Erik Nielsen, zuzendaria/director

Maisuetan maisuena

Joaquín Achúcarrok, nazioarteko karrera bikaina izateaz gain, jarduera pedagogiko bizia garatu du, batez ere, Dallaseko bere katedran, handik piano-jotzaile bikainak irten direla. Maisuaren alderdi horren omenezko programa gertatu dugu Achúcarroren ikasle eta kontzertista bikaina den Alessio Baxen eskutik, erreperorioan ezinbestekoa den Brahmsen lehen kontzertua interpretatuta. Erik Nielsenen espezialitateetako batek, Stravinskyren musikak, eta gure Arriagaren gomutak, hil eta berrehun urtemugan, osatuko dute egitaraua.

Maestro de maestros

Joaquín Achúcarro, además de su brillante carrera internacional, ha desarrollado una intensa actividad pedagógica, sobre todo en su cátedra en Dallas, de la que han surgido excelentes pianistas. Rendimos homenaje a esta faceta del maestro en la figura de su alumno y gran concertista Alessio Bax, ante ese tótem del repertorio que es el primero de Brahms. Stravinsky, una de las especialidades de Erik Nielsen y el recuerdo a nuestro Arriaga en su bicentenario completan el programa.



© Benjamin Ealovega

09 otsailak 05 - 06 febrero

G. Ligeti *Concert Românesc*

D. Shostakovich *Concierto nº 2 para piano y orquesta en Fa Mayor Op. 102*

P. I. Tchaikovsky *Sinfonía nº 5 en mi menor Op. 64*

Yeol Eum Son, pianoa/piano

Pablo González, zuzendaria/director

Txaikovskiren Bosgarrena

Txaikovskik bere bosgarren sinfonia aurkeztu zuenean, Errusiako konpositore behinentzat hartzen zuten, eta herrialde horretan gogo-gogotik aintzat hartzen zuten musika. Eta musika lantzen, musikagile handienen helburua bete zuen: mundu-mailako musika egitea, jaioterriko sustraiei uko egin barik. Beste alde batetik, Xostakovitxek atsedenaldua hartu zuen bere seme Maksimi kontzertu ederra, arina, elegiazkoa eta ametsezkoa oparitzeko. Programari hasiera emateko, Errumaniako Ligeti gaztearen musika jaioterriko folkloreaken gorazarrean.

La Quinta de Tchaikovsky

Cuando Tchaikovsky presentó al mundo su quinta sinfonia, ya era considerado el primer compositor de Rusia, un país que se tomaba muy en serio la música. Y en ella cumplió el objetivo de los grandes: sonar universal sin renunciar a sus raíces nacionales. Shostakovich, por su parte, se dió una tregua para regalar un precioso concierto, ligero, elegiaco y ensoñador, a su hijo Maxim. Para abrir, un joven Ligeti rindiendo homenaje al folklore de su Rumanía natal.



© Piera Mungiguerra

10 otsailak 12 - 13 febrero

W. A. Mozart

*Sinfonía concertante para violín, viola,
y orquesta en Mi bemol Mayor K.364*

F. Schubert

Sinfonía nº 4 en do menor D. 417 "Trágica"

Cristina Blanco, biola/viola

Lorenza Borrani, biolina/violín-zuzendaria/directora

Borrani eta Mozarten Kontzertantea

Lorenza Borrani biolin-jotzailearen bisita guztietan, arriskua eta emozioa dira nagusi. Programa honetan, txandaka joko du biolina Mozarten *Sinfonía kontzertante* zoragarrian gure biola-jotzaile bakarlari Cristina Blancorekin batera, eta zuzendari jardungo du *4. Sinfonian*, hots, Schubertek berak *'Tragikoa'* deitu zuen horretan. Schuberten orkestra-lan ugarirekin gertatu bezala, musikagileak ez zuen estreinaldirik entzun bizirik zegoela.

Borrani y la Concertante de Mozart

Cada visita de Lorenza Borrani es sinónimo de riesgo y emoción. En esta ocasión alternará como violinista en la maravillosa *Sinfonía concertante* de Mozart, junto a nuestra solista de viola Cristina Blanco, y como directora frente a la *Sinfonía nº 4*, apodada *"Trágica"* por el propio Schubert. Una obra que, como mucha de su música orquestal, el compositor no llegó a escuchar estrenada en vida.



© Fethi Karaduman

11 otsailak 26 - 27 febrero

F. Say *Grand Bazaar Op.65*

F. Say *Mother Earth, Concierto para piano y orquesta*

L. van Beethoven

Sinfonía nº 7 en La Mayor Op. 92

Fazil Say, pianoa/piano

Nil Venditti, zuzendaria/directora

Ama Lurra, Fazil Sayren eskutik

Aurreko urteetan Fazil Say musikari turkiarraren musikaz gozatu dugu, bai konpositore lanetan, bai pianoa jotzen. *Mother Earth* piano-kontzertuaren estreinaldia dela eta, berak sortutako lana jotzen entzuteko parada izango dugu. Sayren musika ondo baino hobeto ezagutzen duen Nil Venditti herrikideak jardungo du orkestra zuzentzen, eta egitaraua osatuko du Beethovenen *"Zazpigarrena"* gidatuta.

Madre Tierra, con Fazil Say

En años anteriores hemos disfrutado de la figura del músico turco Fazil Say, tanto en su faceta de compositor como de pianista. Con motivo del estreno de *Mother Earth*, su concierto para piano, tendremos el privilegio de escucharle ante su propia creación. Al frente de la orquesta, su compatriota Nil Venditti, gran conocedora de su música, quien completará el programa con la célebre *"Séptima"* de Beethoven.



© Andrej Grlic

12 martxoak 12 - 13 marzo

R. Langgaard

Upaaagtede Morgenstjerner

K. Szymanowski

Concierto nº 1 para violín y orquesta Op. 35

A. Bruckner

Sinfonía nº 7 en Mi Mayor

Alena Baeva, biolina/violín

Thomas Dausgaard, zuzendaria/director

Dausgaard eta Brucknerren 7.a

Thomas Dausgaardek, segurutik, Danimarkako orkestra-zuzendari garrantzitsuenak, debuta egingo du gure denboraldian mugarri sinfoniko bat dakarren programa zorrotza garatuta: Brucknerren 7.a Wagnerren *Parsifal* entzuteak eragin zion zirrara sakonak bultzatuta idatzi zuen obra konpositore alemanak; horixe izan zen musikagilearen obrarik garrantzitsuena eta, bizirik zegoela, Brucknerri arrakasta eman zion sinfonia bakarra. Egitaraua biribiltzeko, Alena Baeva biolin-jotzaile bikaina itzuliko da gurera.

Dausgaard y la 7ª de Bruckner

Thomas Dausgaard, probablemente el director de orquesta danés más importante, debuta en nuestra temporada con un exigente programa que incluye un hito sinfónico, la 7ª de Bruckner. Escrita durante la profunda impresión que produjo al compositor la escucha de *Parsifal* de Wagner, la obra quedó como un monumento en memoria del compositor alemán y la única sinfonia que proporcionó a Bruckner éxito en vida. La cita se completa con el regreso de la estupenda Alena Baeva.



© Arte Ederren Bilboko Museoa-Museo de Bellas Artes de Bilbao
Kalbarioa/ Calvario c. 1576-1580 Madera policromada

13 martxoak 26 - 27 marzo

J. S. Bach

La Pasión según San Juan, Oratorio en dos partes para solistas, coro y orquesta BWV 245

San Juan Bautista Abesbatza, abesbatza/coro

(Basilio Astúlez, zuzendaria/director)

Ana Quintans, sopranoa/soprano

Rodrigo Carreto, tenorra/tenor, Evangelista y arias

José Coca Loza, baxua/bajo

Peter Harvey, baxua/bajo Jesús

Carlos Mena, kontratenorra/contratenor-zuzendaria/director

Pasioa San Joanen arabera

Oratorio bikainak itzuliko dira gure denboraldira Carlos Menaren eta San Juan Bautista Abesbatzako kideen ahotsen eskutik. Egiazko erronka da Leioako abesbatza gaztearentzat, ondoan Bachen erreperatorioan adituak diren abeslari bikainak izango dituela. Musika sakratua Aste Santuaren atarian.

La Pasión según San Juan

Vuelve el gran oratorio a nuestra temporada de la mano de Carlos Mena y las voces de San Juan Bautista Abesbatza. Un verdadero reto para el joven coro de Leioa que se verá acompañado por un reparto de excelentes cantantes, especialistas en el repertorio bachiano. Una cita ineludible con la música sacra a las puertas de la Semana Santa.



14 apirilak 16 - 17 abril

M. de Falla / F. Coll

Fantasía Baética

M. P. Sánchez

Concierto para piano y orquesta "A Manuel de Falla"

(Estreno Absoluto. Obra por encargo de la Fundación AEOS y la SGAE)

L. van Beethoven

Sinfonía nº 4 en Si bemol Mayor Op. 60

Moisés P. Sánchez, pianoa/piano

Nuno Coelho, zuzendaria/director

Falla gogoratuz

Manuel de Fallaren jaiotzaren 150. urteurrenean, bi musikari bikainen etorriaren iturri izan den cadiztarra gogoratuko dugu: Moisés P. Sánchez piano-jotzailea, jazz-moldea jotzen duena (kasu jazz-hirukotearekin interpretatzen duen ganberako errezitaldiari!) baina musika klasikoaren inguruko prestakuntza jasotakoa; Fallaren omenezko kontzertua estreinatuko dugu egitarauan. Bestetik, Cádizko konpositorearen *Fantasía Baética* lanaren gainean Francisco Collek egindako orkestrazioa eskainiko dugu. Errepertorio luzean, Beethovenen laugarrena entzungo dugu Nuno Coelhoen batutaren aginduetara.

Evocando a Falla

En el 150 aniversario de Manuel de Falla recordamos su figura como fuente de inspiración de dos músicos brillantes: el pianista Moisés P. Sánchez, de carrera jazzística (atención al recital en cámara con su trío de jazz) pero formado en la clásica, y de quien estrenamos su concierto en homenaje a Falla; y Francisco Coll, con su orquestación de la *Fantasía Baética* del compositor gaditano. El gran repertorio vendrá servido por la 4ª de Beethoven en la batuta de Nuno Coelho.



15 apirilak 23 - 24 abril

R. V. Williams

The Wasps, Obertura

E. Lalo

Symphonie espagnole

R. V. Williams

Sinfonía nº 2 "A London Symphony"

Ellinor D'Melon, biolina/violín

Catherine Larsen-Maguire, zuzendaria/directora

Londres eta Symphonie espagnole

Atlantikoko ardatza hegoaldeetik iparraldera zeharkatzen duen programa. Pablo Sarasate sonatuak inspiratu zuen Edouard Lalo frantziarra, eta horregatik dedikatu zion *Symphonie espagnole* zoragarria. Vaughan Williamsek Londres hiriarren oroitzapen gorena marraztu zuen haren bigarren sinfonian, eta Ingalaterrako musikaren enblema bihurtu zuen. Horretaz guztiaz gozatuko dugu Catherine Larsen-Maguireren batutaren bidez, errepertorio horren jakitun bikaina baita.

Londres y la Symphonie espagnole

Un programa que recorre el eje atlántico de sur a norte. Desde la inspiración que sobre el francés Edouard Lalo ejerció el célebre Pablo Sarasate, dedicatario de la brillantísima *Symphonie espagnole*, hasta la sublime evocación de la ciudad de Londres que Vaughan Williams dibujó en su segunda sinfonía, un emblema de la música inglesa, que disfrutaremos en la batuta de Catherine Larsen-Maguire, gran conocedora de este repertorio.



© Marco Borggreve

16 maiatzak 07 - 08 mayo

- F. Schubert** *Obertura al estilo italiano en Do Mayor D. 591*
- W. A. Mozart** *Concierto nº 22 para piano y orquesta en Mi bemol Mayor K. 482*
- F. J. Haydn** *Sinfonía nº 104 en Re Mayor Hob. I: 104 "Londres"*

Kit Armstrong, pianoa/piano
Jan Willem de Vriend, zuzendaria/director

Haydn, sinfonista aparta

Historian izan diren sinfonista bikain guztiek, hala nola Beethovenek, Mahlerrek, Brahmssek edo Xostakovitxek, molde horretako musikagile bikain Haydnkiko zor ordaingabea dute. Patuaren irrikaz, Haydnen koda Salomon enpresaburuak Ingalaterran agindutako 12 sinfoniaren sorta izan zen, eta azkenak, guztietan handientsuenak, "London" izena zeukan. Klasizismoa ere ausarta izan daiteke, batik bat, Vriend eta Kit Armstrong adituek jotzen baldin badute.

Haydn, el gran sinfonista

Todos los grandes sinfonistas de la historia, de Beethoven a Mahler, de Brahms a Shostakovich, tienen una deuda permanente con Haydn, el gran escultor de esta forma musical. Quiso el destino que su coda final fueran las 12 sinfonías encargadas por el empresario Salomon en Inglaterra, y que la última, la más majestuosa de todas, llevase el nombre de "London". El clasicismo puede ser muy atrevido si está servido por dos especialistas como de Vriend y Kit Armstrong.



17 ekainak 04 - 05 junio

- C. Chávez** *Sinfonía nº 2 "India"*
- P. Flores** *Morocota*
- P. D'Rivera** *Concerto venezolano*
- G. Ortiz** *Téenek - Invenciones de Territorio*
- J. P. Moncayo** *Huapango*

Pacho Flores, tronpeta/trompeta
Leo Rondón, cuatro venezolano
Carlos Miguel Prieto, zuzendaria/director

Pacho Paquitoren musika jotzen


Pacho Flores gurera etorriko da berrito tronpeta-kontzertu bikaina jotzera, hain zuzen ere, Paquito D'Rivera apartak eskaini diona, Venezuelako erritmoetan oinarrituta. Izan ere, Amerikako kontinentearen hegoaldeak azken hamarkadetako musikarik onenetakoa eman digu; horren adibide bikainez gozatu dugu Carlos Miguel Prietoren batuta bizigarriaren erara. Adi egon Gabriela Ortizen azalpenei eta nortasunari nahiz lurraldeari buruz egingo duen hausnarketa musikalarari.

Pacho interpreta a Paquito

Regresa Pacho Flores para interpretar uno de los grandes conciertos recientes de trompeta, el que le ha dedicado el gran Paquito D'Rivera, inspirado en los ritmos venezolanos. Y es que el sur del continente americano ha dado mucha de la mejor música de las últimas décadas, y hemos disfrutado de buenos ejemplos en la estimulante batuta de Carlos Miguel Prieto. Estén atentos a Gabriela Ortiz y su reflexión musical sobre la identidad y el territorio.


protagonistak protagonistas


E
d Elkarrizketak
diálogos



Gure denboraldiko protagonista gehiago

Más protagonistas de nuestra temporada







Ganberako denboraldia Temporada de cámara

Ganbera denboraldian abonu sinfonikoko hiru bakarlariren aurpegiak intimistenak izango ditugu: Moisés P. Sánchez pianistak eta haren hirukoteak *(Re)Inventions* bikaina aurkeztuko dute, Bachen musikaren gaineko inprobisazioekin; Sasha Cookek lied errezitaldi bat eskainiko du Ramón Tebar zuzendariarekin batera, piano-jotzaile; eta Kit Armstrong sortzaileak BOSeko kideak lagunduko ditu programa interesgarri batean.

Denboraldian zehar, Juan Crisóstomo Arriagaren heriotzaren 200. urteurrena gogoratuko dugu, BOSeko kideek haren bi kuarteto interpretatuz, baita Luciano Berioaren mendeurrena ere, haren *Folk songs* interpretatuz.

En la temporada de cámara disfrutaremos de la cara más intimista de tres de los solistas del abono sinfónico: el pianista Moisés P. Sánchez y su trío presentan su espléndido *(Re)Inventions*, con improvisaciones sobre música de Bach; Sasha Cooke ofrecerá un recital de lied junto al director Ramón Tebar, en su vertiente de pianista; y el creativo Kit Armstrong acompañará a miembros de la BOS en un interesante programa.

Durante la temporada recordaremos el 200 aniversario de la muerte de Juan Crisóstomo de Arriaga, con la interpretación de dos de sus cuartetos, por miembros de la BOS, así como el centenario de Luciano Berio con la interpretación de sus *Folk songs*.

bbkE Pianoko babeslea
Patrocinador del piano

① **Kontzertu guztiak 19:30ean izango dira**
Todos los conciertos se celebrarán a las 19:30 h

 **Euskalduna Bilbao
OB Aretoa/Sala OB**

Programazio hau alda liteke. Baldintza orokorrak ikusteko www.bilbaorquestra.eus
Programación sujeta a cambios. Ver condiciones generales en www.bilbaorquestra.eus



01 **urriak 20** octubre

Bakarlari Handiak Errezitaldian
Grandes Solistas en Recital

Lieder de **Mahler, Korngold, Weill, Rachmaninov**

Sasha Cooke, mezzosopranoa/mezzosoprano
Ramón Tebar, pianoa/piano



02 azaroak 10 noviembre

J. Álvarez
Metro Chabacano
Cuarteto de cuerda BOS

T. Bretón
Cuarteto de cuerda n° 3 en mi menor
Cuarteto de cuerda BOS

A. Piazzolla *Selección de Tangos*
Cuarteto de violín, contrabajo, bandoneón y piano BOS



03 abenduak 15 diciembre

G. Connesson
Techno Parade
Trío de flauta, clarinete y piano BOS

I. Stravinsky
Octet
Octeto de viento BOS

J. N. Hummel
Septeto en Do Mayor Op. 114 "Septeto Militar"
Septeto de viento, cuerda y piano BOS



© Arte Ederren Bilboiko Museoa-Museo de Bellas Artes de Bilbao
Sin título (Sesión de música en el Bilbao romántico), 'detalle'
1817
Tinta y acuarela sobre papel.

04 urtarrilak 19 enero

200 Arriaga
J. C. Arriaga
Obertura Op. 1
Noneto de viento y cuerda BOS

J. C. Arriaga
Cuarteto n° 2 en La Mayor
Cuarteto de cuerda BOS

L. van Beethoven
Septeto en Mi bemol Mayor Op. 20
Septeto de viento y cuerda BOS



05 otsailak 02 febrero

200 Arriaga

C. Frühling


*Trío para clarinete, violoncello y piano
en la menor Op. 40*

Trío de clarinete, violonchelo y piano BOS

J. C. Arriaga

Cuarteto n° 3 en Mi bemol Mayor

Cuarteto de cuerda BOS



06 otsailak 16 febrero

100 Berio

J. Jongen *2 Pièces en trio Op. 80*

Trío BOS

L. Berio *Folk songs para mezzosoprano y ensemble*

Ensemble BOS

J. Brahms *Serenata n° 1 en Re Mayor Op. 11*

Ensemble de viento y cuerda BOS



07 martxoak 23 marzo

A. Dvorak

Quinteto en Mi bemol Mayor Op. 97 B. 180

Quinteto de cuerda BOS

W. A. Mozart

Gran sexteto concertante [KV 364]

Sexteto de cuerda BOS



08 **apirilak 27** abril

Bakarlari Handiak Errezitaldian
Grandes Solistas en Recital

Bach (Re)Inventions
M. P. Sánchez Invention trío

Moisés P. Sánchez, pianoa/piano
Pablo Martín Caminero, kontrabaxua/contrabajo
Pablo Martín Jones Johnston, perkusioa/percusión



09 **maiatzak 11** mayo

Bakarlari Handiak BOSeKin batera
Grandes Solistas con la BOS

F. Mendelssohn *Sexteto para piano y cuerdas en Re Mayor Op. 110*
Sexteto BOS

E. von Dohnanyi *Sexteto Op. 37*
Sexteto de cuerda y viento BOS

Kit Armstrong, pianoa/piano



10 **maiatzak 25** mayo

F. M. Veracini *Obertura nº 6 en sol menor IFV 6*

J. S. Bach *Concierto nº 3 para cembalo y orquesta en Re Mayor BWV 1054*

F. Geminiani *Concerto grosso nº 6 en Si bemol Mayor Op. 7, H. 120*

J. - P. Rameau *Les Boréades, selección*

Ensemble barroco BOS
Silvia Márquez, klabea/clave



5 abonua mota

tipos de abonos

DENBORALDI OSORAKO abonua | Abono de TEMPORADA COMPLETA

17 kontzertu
conciertos

Uztailaren 8tik aurrera | A partir del 8 de julio

Abonuak NAHIERARA
Abonos A LA CARTA


HASTAPENENKO abonua
Abono de INICIACIÓN

Abonu TEMATIKOA
Abono TEMÁTICO


6 kontzertu
conciertos

9 kontzertu
conciertos

6 kontzertu
conciertos

 **Egitarauak | Programas**
3, 4, 6, 10, 13, 17

4 kontzertu
conciertos

 **Egitarauak | Programas**
2, 5, 11, 17

Uztailaren 15etik aurrera | A partir del 15 de julio

BOSeko abonatu^{en} ABANTAILAK

VENTAJAS de las personas abonadas a la BOS

Aurrezki handia lortzen duzu

Consigues un importante ahorro

Zure abonuaren ordainketa zatikatu**

Puedes fraccionar el pago de tu abono**

Kontzertura joango zaren data alda dezakezu*

Puedes cambiar el día de asistencia al concierto*

2 gonbidapen daukazu*/**

Dispones de 2 invitaciones*/**

Deskontua sarrera solteak erostean

Descuento en la compra de entradas sueltas

Deskontua ganberako denboraldiaren abonuan

Descuento en el abono de la temporada de cámara

Deskontu berezia abonatu berria ekartzeagatik

Descuento especial por traer una nueva persona abonada



Hemen dituzu baldintza guztiak:

<https://www.bilbaorkestra.eus/eu/abonuak-eta-sarrerak/zergatik-abonatu/>

*7. programan izan ezik

**Denboraldi osoko bazkideak bakarrik

Ver condiciones completas en:

<https://www.bilbaorkestra.eus/abonos-y-entradas/por-que-abonarse/>

Excepto en el programa número 7

**Solo personas abonadas temporada completa



RenHacer 20
25
Festival · Musikaldia

11 Sep
20h

Riojaforum
Logroño

13 Sep
19h

Santuario Arantzazu
Gipuzkoa

14 Sep
19h

Euskalduna
Bilbao

REQUIEM DE VERDI

15%
dto
PERSONAS ABONADAS



Miren Urbieta-Vega
Soprano

María José Montiel
Mezzosoprano



Jonathan Tetelman
Tenor



George Andguladze
Bajo



Ramón Tebar
Dirección musical



BOS (Bilbao Orkestra Sinfonikoa)



ORFEÓN DONOSTIARRA

Abonuen prezioak | Precios de los abonos

Denboraldi sinfonikoa / Temporada sinfónica

30 urtetik gorakoak / Mayores de 30 años

	Kontzertuak Conciertos	A+	A	B	B hegala* lateral	C	C hegala* lateral
Abonu osoa / Abono completo	17	366,86 €	337,45 €	266,90 €	240,89 €	135,15 €	122,40 €
Hastapen-abonua / Abono de iniciación	6	-	136,26 €	104,82 €	94,62 €	77,82 €	70,38 €
Abonua nahierara-6 / Abono a la carta-6	6	-	143,22 €	108,06 €	97,44 €	81,60 €	73,68 €
Abonua nahierara-9 / Abono a la carta-9	9	-	213,39 €	162,09 €	146,25 €	122,40 €	110,52 €
Abonu tematikoa / Abono temático	4	-	103,08 €	71,76 €	64,76 €	54,80 €	49,48 €

Gazteak (30 urterarte) / Jóvenes (hasta 30 años)

	Kontzertuak Conciertos	A+	A	B	B hegala* lateral	C	C hegala* lateral
Abonu osoa / Abono completo	17	129,88 €	129,88 €	93,33 €	84,83 €	81,94 €	74,63 €
Hastapen-abonua / Abono de iniciación	6	-	48,48 €	36,12 €	32,76 €	26,22 €	23,94 €
Abonua nahierara-6 / Abono a la carta-6	6	-	50,94 €	37,02 €	33,60 €	27,84 €	25,32 €
Abonua nahierara-9 / Abono a la carta-9	9	-	76,50 €	55,62 €	50,40 €	41,76 €	37,98 €
Abonu tematikoa / Abono temático	4	-	34,20 €	25,44 €	23,08 €	19,24 €	17,52 €

Ganberako denboraldia / Temporada de cámara

	30 urtetik gorakoak Mayores de 30 años	Gazteak (30 urterarte) Jóvenes (hasta 30 años)
Denboraldi sinfonikoan abonatuak Personas abonadas temporada sinfónica	56,80 €	28,40 €
Denboraldi sinfonikoan abonatu gabeak Personas no abonadas temporada sinfónica	90,70 €	45,40 €

*Eserleku hauen ikuspena murrizta da. Estas localidades tienen una visibilidad reducida.

Prezio horiek baliozkoak dira, tipografia-arazoen eragindakoak direnean salbu. BEZ barne. Precios válidos salvo error tipográfico. IVA incluido.

Nola abonatu? | ¿Cómo abonarse?

BOSeKO BULEGOetan
astehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara
Euskalduna Bilbao.
Abandoibarra etorbidea, 4. 48011 Bilbao



En las **OFICINAS** de la BOS
de lunes a viernes, de 09:00 a 14:00 horas.
Euskalduna Bilbao.
Avda. Abandoibarra, nº 4 48011 Bilbao



WEB orrialdean



En la página WEB



INFORMAZIO gehiago



Más INFORMACIÓN

944 035 205

Sarreraren prezioak | Precios de las entradas

Denboraldi sinfonikoa / Temporada sinfónica

(egitarau guztiak 7. izan ezik. Eratzunen Jauna
todos los programas excepto el nº7. El Señor de los Anillos)

	A+	A	B	B ^{hegala* lateral}	C	C ^{hegala* lateral}
30 urtetik gorakoak / Mayores de 30 años	32,60 €	29,41 €	20,75 €	18,80 €	15,91 €	14,42 €
Gazteak (<30)** / Jóvenes (<30)**	10,25 €	10,25 €	7,78 €	7,06 €	5,92 €	5,41 €
Azken Ordua*** / Última hora***	16,30 €	14,70 €	10,38 €	9,40 €	7,96 €	7,21 €
Credibos**** / Credibos****	-	145,50 €	103,20 €	-	79,50 €	-

Eratzunen Jauna: Erregearen Itzulera El Señor de los Anillos: El Retorno del Rey

	A+	A	B	B ^{hegala* lateral}	C	C ^{hegala* lateral}
30 urtetik gorakoak / Mayores de 30 años	60,00 €	52,00 €	40,00 €	36,00 €	26,00 €	23,40 €
Gazteak (<30)** / Jóvenes (<30)**	30,00 €	26,00 €	20,00 €	18,00 €	13,00 €	11,70 €

Ganberako denboraldia / Temporada de cámara

	30 urtetik gorakoak Mayores de 30 años	Gazteak (30 urterarte) Jóvenes (hasta 30 años)
Denboraldi sinfonikoan abonatuak Personas abonadas temporada sinfónica	8,95 €	6,03 €
Denboraldi sinfonikoan abonatu gabeak Personas no abonadas temporada sinfónica	11,18 €	6,03 €

*Eserleku hauen ikuspena murrizta da. Estas localidades tienen una visibilidad reducida.

**Gazteentzako prezio bereziak txartel-leihatilako salmentan baino ez dira aplikatzen. Los precios especiales para jóvenes solo se aplican en la venta en taquilla.

Sarrera-kopuru mugatua. Número limitado de entradas. *Sarrera-kopuru mugatua. Número limitado de entradas.

****6 sarrerako bonoa (Kontzertu Sinfoniko baterako edo gehiagorako, 7. programa izan ezik) ***** Bono de 6 entradas (Para uno o más Conciertos Sinfónicos, excepto programa nº7)

Prezio horiek baliozkoak dira, tipografia-arazoen eragindakoak direnean salbu. BEZ barne. Precios válidos salvo error tipográfico. IVA incluido.



Sarreraren salmenta | Venta de las entradas

Irailaren 15etik aurrera
izango dira salgai kontzertuetarako sarrerak.
• www.bilbaorquestra.eus
• Euskalduna Bilbao txartel-leihatilak

A partir del **15 de septiembre**
estarán a la venta las entradas para los conciertos
• www.bilbaorquestra.eus
• Taquillas Euskalduna Bilbao

Baldintza orokorrak | Condiciones generales



Ondorengo helbidean kontsulta ditzakezu gure baldintza orokorrak:

Consulta nuestras condiciones generales en:





Bilbao Orkestra
Sinfonikoa



www.bilbaorquestra.eus



Euskalduna Bilbao

Abandoibarra etorbidea, 4. 48011 Bilbo | 944 035 205 | abonados@bilbaorquestra.eus



Denboraldiko babeslea
Patrocinador de temporada